



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
[arrantza.udala@terra.es](mailto:arrantza.udala@terra.es)

## 2012KO URRIAREN 30EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2012.10.30.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:30ean.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Imanol Artola Guridi jn.  
Ander Almandotz Indakoetxea jn.  
Koldobike Gorostiza Uriguen and.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Udal eraikinen garbiketa.
- 3.-2013ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 4.-Arantzako eskolaren egoera.
- 5.-Anguleroko eraikuntzaren egoera.
- 6.-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: hizkuntza eskakizunei buruzko txostena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2012ko irailaren 20an eta 2012ko urriaren 5eko aktak ikusi ondoren, hurrengo bilerarako utzi dira.

### **2.-UDAL ERAIKINEN GARBIKETA.**

Azkeneko bileran erabaki zen aztertzea udal eraikinen garbiketa lanen zerrenda eta baldintzak, eta eskola, osasun kontsulta eta ludotekara igortzea aldaketak, proposamenak edota bertzelako aipamenak adierazteko.

Ikusirik, hartutako erantzunen arabera, lan gehiago eskatzen dela.

Ikusirik denek ikusten dutela lan asko dela pertsona batentzako eta egunean gelditzen diren orduetan.

Ikusirik Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 233/2012 ebazpena, otsailaren 23koa, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2260/2012 ebazpenaren bidez aldatua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2013. urterako udal eraikinen garbitasuna egiteko bi pertsona kontratatzea, aldi baterako (2013. urterako) eta 3 orduz lan egiteko bakoitzak eta egunero.
- 2) Deialdiaren oinarriak onartzea.
- 3) Deialdi publikoa egitea.
- 4) Nafarroako Enplegu Zerbitzuari diru laguntza eskatzea aipatutako langileen kostoa finantzatzeko.

### **3.-2013KO KARGA TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.**

Gai hau mahai gainean uzten da hobeto aztertzeke.

### **4.-ARANTZAKO ESKOLAREN EGOERA.**

Aztertu da eskolaren egoera eta Eskola Kontseiluaren kezka dagoen lekuaren faltaz, konkretuki heldu den ikasturtearen matrikulazioari begira. Gela gehiago beharrezkoak dira eta Udaleko Arkitektoekin gaia aztertu ondoren hauek eraikuntza altxatzea proposatu dute bi gela handi egiteko.

Eskolak gaia Hezkuntza Departamentuari ere aipatu dio eta hemendik 2 langile ikustera pasatuko dira.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Gaia aztertzeke Hezkuntza Departamentuko langile, udal arkitektoa eta zinegotziekin bilera egitea eskolan bertan.

### **5.-ANGULEROKO ERAIKUNTZAREN EGOERA.**

Irakurri dira udal arkitekto eta abokatuen txostenak Agimaure enpresaren eraikuntzaren egoera dela eta.

Bietan adierazten dute erakinaren egoera ez duela segurtasun, osasungarritasun eta apaintasun publikoari dagozkion beharrezko neurriak betetzen.

Kontuan hartuz Udalak nahi duena dela hori eskuratu zerbait egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal arkitekto eta abokatuei eskatzea hori aztertzea.

### **6.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: HIZKUNTZA ESKAKIZUNEI BURUZKO TXOSTENA.**

Ikusirik Bortziritako Euska Mankomunitateak bidalitako akordioa Bortziritako toki entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruzko txostena zuzendua.



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortziritako Euskara Mankomunitateko txostena eta honen aldaketa onartzea eta plantilla organikoan aplikatzea.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ateri da bilera aretotik.

#### **7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 83tik 90 arte).

#### **8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez da izan.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.



